



Kudeaketa administratiboko teknikari bi plaza

AURRETIAZKO INFORMAZIOA

BIGARREN PROBA

A ZATIA, TEORIKOA

- Data: **2025eko irailaren 25ean**
- Ordua: **10:00**
- Lekua: **Kulturate eraikina** (Azoka kalea 1), atzeko atetik sartu (Otalora kalea).
- Azterketa gunea **9:45ean irekiko** da.
- Ezin izango da irten azterketa hasten denetik gutxienez 20 minutu pasatu arte.
- Azterketa gunearen barruan, zaintzaileek esandakoari jarraituko zaio beti.

JARRAIBIDEAK

Irakurri arretaz jarraibide hauek. Oso garrantzitsuak dira azterketa nola egin jakiteko. Azterketa egiteko moduari buruzko zalantzarik edo zailtasunik baduzu, galdetu zaintzaileei azterketa hasi aurretik.

EZ IDATZI EZER AGINDUA EMAN ARTE.

- Mahaiaren gainean ondoko materiala aurkituko duzu:
 - jarraibideen bi orri (euskaraz eta gaztelaniaz)
 - kartazal handia
 - kartazal txikia
 - identifikazio txartela
 - erantzun orria.

Zerbait falta bada, eskua altxa eta eskatu zaintzaileari.

- Azterketa egin bitartean, zure **NANa** mahai gainean utzi behar duzu, ikusteko moduan. Telefono mugikorra ekarri baduzu, itzali egin behar duzu. Azterketan zehar, eman zaizun materiala, azterketan bertan banatu zaizuna, NANa eta **boligrafoa (beltza edo urdina)** baino ezingo dituzu eduki mahai gainean.
- Isiltasunak erabatekoa izan behar du azterketa gunean zauden denbora oro. Besteentzat desegokia edo gogaikarria den edozein jokabidek esparrutik kanporatzea ekarriko du.

Kodea	AG25/04117	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1B0D5.J.GQh9			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1B0D5J.GQh9			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				




Esp. kodea: 2024PHLF0002

Gaia: Mantenuko burua, oposizio-lehiaketa

- Ez idatzi ezer kartazaletan. Kartazal handian zein txikian egindako edozein identifikazio ikurrek automatikoki ekarriko dute ariketa baliogabetzea.
- Idatzi, agindua ematen zaizunean**, izena, bi abizenak eta NA zenbakia identifikazio txartelean, **beste inon ez**. Idatzi data eta probaren izena.
- Sartu identifikazio txartela kartazal txikian, berau itxi eta kartazal handian sartu. Ez itxi kartazal handia azterketaren amaieran erantzun orria sartu arte.
- Galdera bakoitzak lau erantzun aukera ditu: A, B, C eta D, eta erantzun zuzen bakarra. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzun zuzena adierazi behar duzu erantzun orrian.
- Erantzuna adierazteko goiko lerroan aukerari dagokion laukitxoak belztu. Zuzenketarik egin nahi baduzu, baliogabetu nahi duzun erantzuna eta beheko lerroan belztu erantzun berria. Epaimahaiaren arabera zalantzarazkoa bada zein erantzun aukeratu den, galdera hori erantzun gabekotzat joko da. Erantzun orriaren atzealdean horren adibidea dago.
- Egingo duzun azterketak **85 galdera** ditu. Erreserbako 5 galderak aurreko 80 galderetako bat baliogabetzen denean bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, **85 galderei erantzuten saiatu behar duzu**.
- Azterketa egiteko 2 ordu izango dituzu.**
- Erantzun oker bakoitzeko izango den penalizazioa azterketa aurretik adieraziko da. Erantzun gabeko galderak ez dira okerreko erantzuntzat hartuko.
- Ariketa amaitzen duzunean**, sartu erantzun orria kartazal handian; altxa eskua eta itxaron zaintzailea hurbildu arte. Gogoratu ezin dela identifikaziorik edo markarik agertu kartazaletan edo/eta erantzun orrian. Azterketa entregatu ondoren, irten ahal izango zara.
- Azterketa eta erantzun orriaren kalkoa eraman dezakezu zurekin, azterketa amaitzean.
- Erantzun zuzenen txantiloia azterketa egunean edo biharamunean argitaratuko da.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

Kodea	AG25/04117	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1B0D5.J.GQh9			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1B0D5J.GQh9			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				